



Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea



- Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra
- Cátedra UNESCO de Patrimonio Lingüístico Mundial

[2021 urteko
JARDUERA MEMORIA]

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena
2. Harremanak erakundeekin
3. 2021ean bideratutako proiektuak
4. Katedrak antolatutako ikastaro eta jardunaldiak
5. Katedrakideek emandako ikastaroak
6. Katedrakideen hitzaldiak eta kongresuetan aurkeztutako komunikazioak
7. Katedrako bestelako jarduera batzuk
8. Katedraren presentzia hedabideetan
9. Katedrakideek jasotako sariak
10. Katedrakideen argitalpenak
 - 10.1. Liburuak
 - 10.2. Kapituluak
 - 10.3. Artikuluak

1. AURKEZPENA

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra (MHOUK) Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta UNESCOren artean sinatutako hitzarmenaren emaitza da. Hitzarmena 2006 sinatu eta Katedrak 2007an eman zion hasiera bere ibilbideari Itziar Idiazabalen ardurapean. Katedraren sorrera UNESCO Etxeari zor zaio; erakunde horren gidaritzapean, UNESCO Parisek eskatuta, munduko hizkuntzei buruzko txostena (Martí et al., 2006¹) burutu zen 1996 eta 2005 bitartean, ondoren hainbat hizkuntzatan itzuli zena. 1998an Eusko Jaurlaritzaren eta UNESCOren artean sinatutako memorandumari esker gauzatu ahal izan zen proiektu hori. Harrezkero, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak eta UNESCO Etxeak elkarlanean jarraitu izan dute, bereziki garapenerako proiektuetan.

2017an UPV/EHUren eta UNESCOren arteko hitzarmena berriztatu zen beste lau urtez eta Katedraren zeregina Hezkuntzaren alorrera ere atxikitzea onartu zuen UNESCOk. Horri esker, Katedrak jarraipena eman ahal izan dio munduko hizkuntzen egoerari buruzko azterketei, eta bereziki, modu monografikoagoan, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruan egiten den lanari eta garapenerako hizkuntza lankidetzari. Horretaz gain, Katedraren borondatea da hezkuntza baloreak eta prestakuntza inklusibo eta justua sustatzea eta etengabeko ikaskuntza bultzatzea, 2030eko Garapen Iraunkorrerako 4. helburuari ekarpena egiteko, baina baita hizkuntzaren zeharkakotasuna eta garrantzia aldarrikatzeko Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) guztietan ere.

Katedraren helburua da, beraz, bertako eta kanpoko hizkuntza ondarea aztertu, deskribatu eta ezagutaraztea eta munduko hizkuntzen ondarea ezagutzera ematea. Horretarako, ikerketa, formazioa, informazioa eta dokumentazio-lanak garatzen ditu, betiere, arreta berezia eskainita hizkuntza gutxituei, Euskal Herriko eta euskararen biziberritzearen ikuspegiak aintzat hartuta.

Katedra, gaur egun, arduradunak, teknikari batek, kide aktiboek, Batzorde Tekniko Iraunkorrek eta Aholku Batzordeak osatzen dute.

Arduraduna

- Ines M^a Garcia Azkoaga, Euskal Filologian Doktorea eta eleaniztasunean eta hizkuntzen irakaskuntzan aditua. 2018an hartu zuen Katedraren ardura UPV/EHUko errektoreak izendatuta.

Teknikari-ikertzailea

- Inari Plazaola Zabala, Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua. 2021ean Katedran lanean hasitako kontratupeko ikertzailea.

UPV/EHUko katedrakide aktiboak

- Ibon Manterola (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen jabeakuntzan eta hizkuntzen didaktikan aditua.

¹ Martí Ambel, Félix; Ortega Etcheberry, Paul; Idiazabal Gorrotxategi, Itziar; Barreña Agirrebeitia, Andoni; Juaristi Larrinaga, Patxi; Junyent Figueras, Carme; Uranga Arakistain, Belén; Amorrortu Gómez, Estibaliz (2006). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Leire Diaz de Gereñu Lasaga (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.

Batzorde Tekniko Iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU), ohorezko irakaslea-ikertzailea.
- Andoni Barreña (Garabide Elkartea), Euskal Filologian doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan doktorea eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeko ikertzailea.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkartea), irakaslea eta hizkuntza eta biologia aniztasunean ikertzailea.
- Ane Ortega Etcheverry (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan doktorea, besteak beste, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Beñat Garaio (Soziolinguistika Klusterra), hizkuntzalaritza eta soziolinguistikan ikertzailea EHUan, eta ELEBILAB taldeko kidea.
- Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea), Soziolinguistikan doktorea, soziolinguistika irakaslea eta soziolinguistika eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Arkaitz Zarraga (Basauriko Euskaltegia), Euskal Filologian lizentziatua eta euskararen didaktikan aditua.
- Maite Garcia Ruiz (Euskal Herriko Unibertsitatea), Hizkuntza eta Filologia programako doktoregaia.

Aholku Batzordea

- Xabier Aierdi (UPV/EHU), Soziologia katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi (UPV/EHU), Soziolinguistika katedraduna.
- Maitena Etxebarria (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza Orokorreko katedraduna.
- Patxi Goenaga (UPV/EHU), Euskal Filologia katedraduna.
- Nieves Fernandez Vicente, UNESCO Etxearen lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCO Etxearen zuzendaria.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea), Hizkuntzalaritzan Doktorea eta Euskal Filologiako irakasle eta ikertzailea. Soziolinguistikan aditua.

2. HARREMANAK ERAKUNDEEKIN

Sortu zenetik, Katedra etengabe dihardu elkarlanean izaera ezberdinetako erakunderekin. Lankidetzaz horiek funtsezkoak dira proiektuak bideratzeko eta, besteak beste, babes ekonomikoa bermatzeko.

Gure proiektuei babes ekonomikoa eman izan dietenen artean daude Azkue Fundazioa eta Berrizko Udala, baina azken urtean diru-laguntza horiek galdu ditugunez, hauek dira egun babesa ematen diguten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS);

- Elorrioko Udala: 2019 berriztatu zen beste 4 urtez udal honekin dugun hitzarmena, lehenengo aldiz 2014an sinatu zena;

Beste erakunde batzuekiko harremana eta lankidetzaz ere ezinbestekoa da proiektuak eta egitasmoak aurrera eramateko. Aipatzekoak dira hurrengo hauek:

- UNESCO Etxea, 1991ean sortu zen, eta gure Katedrari babes instituzionala ematen dio sortu zenetik (2007). UNESCO Etxearen asmoa UNESCO erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak-ildoak euskal esparruan zabaltzea da. Egun 132 bazkide ditu, erakundearen gizarte-oinarria osatzen dutenak.

- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS), bere izenak dioen bezala, bere baitan biltzen dituena Euskal Herrian dauden UNESCO izendapena daramaten askotariko erakundeak (ikastetxeak, fundazioak, katedrak...)

- Garabide Elkartea, gobernuz kanpoko erakundea 2013tik daramagu kolaborazioan Garabiderekiko hizkuntza kooperazio proiektutan. Cauca, Kolonbiako hizkuntza kooperazio proiektuarekin jarraitzen dugu gaur egun haiekin batera.

- Soziolinguistika Klusterra.

- Euskal Gorrak (Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa), EAEko Gor helduen Elkarte guztien koordinatzaile eta ordezkari moduan jokatzeko du eta euskal lurralde osoan pertsona gorrek oinarritzeko zerbitzuak jaso ditzaten bermatzera bidean lan egiten du. 2020an sinatu da kolaborazio hitzarmena.

- Asociación Africanista Manuel Iradier, gobernuz kanpoko erakundea. 2014 urtean sinatu zen kolaborazio hitzarmena.

- Oihaneder Euskararen Etxea, Gasteizen kokatuta dagoena eta euskararen zein hizkuntzaren aniztasunaren berri zabaltzeko lana egiten duena.

- UPV/EHUko UNESCO Katedrak:

- Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen UNESCO Katedra
- Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra
- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruz UNESCO Katedra
- Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra
- Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra

- Ayuda en Acción, gobernuz kanpoko erakundea: Erakunde honekiko harremanak 2018an hasi ziren Mexikoko tseltal komunitateak haiekin harremanetan jarri zirenean tseltal hizkuntza biziberritzeko.

Horretaz gain Katedrak harreman estua du Genevako Unibertsitateko hizkuntzen didaktikako adituekin eta Gales, Irlanda eta Frantziako hainbat aditurekin, lan egiten dutenak hezkuntza eleaniztunaren eta hizkuntza gutxituen inguruan. Halaber, 2021ean zehar egindako mintegi batzuen bidez Katedral hizkuntza gutxituaren biziberritzearen eta garapenaren arteko harremanak aztertzen dihardu Galesko Aberystwyth Unibertsitateko adituekin.

3. 2021EAN BIDERATUTAKO PROIEKTU ETA EKIMENAK

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak (MHOUK) honako proiektuak garatu ditu 2021 urtean zehar:

- **Hizkuntza lankidetzak Kolonbiako Cauca:** 2020 urtean bezala, 2021 urtean ere Covid-19aren pandemiak sortutako egoeraren ondorioz, aurreikusita zeuden egitasmoak moldatu egin behar izan ziren arren, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak Garabiderek batera Kolonbiako Cauca duen lankidetzari eutsi dio, prestakuntza eskaintzen eta nasa yuwe ikasteko ikasmaterialak sortzeko laguntza ematen. Alde batetik, Garabidek antolatu eta abian jarri zuen "Diplomatura en Estrategias y Técnicas de Revitalización de la Lengua Aplicada a la Comunidad Nasa" ikastaroaren jarraipena egin da. Cecidicetik (<https://www.cecidic.edu.co/>) proposatuta, ikastaro hori, bi ikasturte "Teknologo" ikastaro bihurtu da, eta UAIIN (<https://uaiinpebi-cric.edu.co/>) unibertsitate indigenak titulu ofiziala ematen du Kolonbia guztirako homologagarria dena. Katedrak lankidetzak izan du ikastaro horretan, eta aurreko edizioetan bezala, Nasa Yuwea Biziberritzeko Prozesuen Kudeaketari Buruzko Formakuntza Teknikoa izeneko ikastaroan hartu dute parte katedrako kideek, ondoko alorrak lantzeko: hezkuntzaren plangintza, irakasleen prestakuntza metodologikoa eta materialen sorkuntza, helduen alfabetatzea eta eskoletako irakaskuntza elebiduna.

Ikasmaterialari dagokionez, 2020rako aurreikusita zegoen nasa yuweren A2 maila irakasteko ikaslearen zein irakaslearen liburuaren prestaketari eman zitzaion hasiera eta proiektu horren jarraipena egin da 2021ean. Horretarako, bilerak egin dira astero liburuaren zuzenketak egiteko, irakasleentzako liburua egokitzeko, etb.

Halaber, aurreko urtean ez bezala, neurri batean, behintzat, egoerak Kolonbiara bidaiatzea ahalbidetu du, eta hala egin du Arkaitz Zarraga katedrakideak, Garabideko beste kide batzuekin batera, prestakuntza eta aholkularitza eskaini dio Nasa komunitateari. Aurten bi zeregin nagusi izan dituzte; alde batetik, Nyafx Fxidx (Nasa Yuwe A1 mailako liburua) errepasatzea eta hura ebaluatzeko irizpideak ezartzea, eta bestetik, E`z Fxidx (A2 mailako liburua) prestatzen hastea. Horrez gain, metodologia komunikatiboen inguruko ikastaroa eman zuen Arkaitzek Toribio eta Jambaló herrietako irakasle eta irakaslegaei. Gainera, hainbat bilera izan zituzten Toribio eta Jambalóko autoritateekin, eta bi herri horietako irratietan izan ziren prozesuaren berri ematen, hau da, Nasa Yuwearen biziberritze prozesua nola ikusten zuten azaltzen eta hizkuntza sustatzearen aldeko mezua zabaltzen.

- *Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen (2020)* ipuin bilduman oinarritutako erakusketa ibiltaria: 2018ko Adituren Ekoizpen kulturalako moduluan ariketa modura abiatu eta 2019ko Caucako teknologikoan segida izan zuen liburuxkak bi argitalpen izan zituen 2020an Garabide, Katedra eta Easo Politeknikoaren babesari esker; bat euskaraz (*Hizkuntza Indigenak. Ama Lurra zaintzen*) eta beste bat nasa yuwez (<https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra/liburuak>). Liburuxkan oinarritutako erakusketa herriz-herri ibili da 2021ean zehar (Aretxabaletan, Barañainen, Elorrion, Durangon...). Erakusketa honen bitartez kooperazio linguistikoaren balio, garrantzi eta horrek ematen dituen aukerak azpimarratu nahi izan dira, halaber hizkuntza-aniztasunaren eta bio-aniztasunaren artean dagoen lotura ere azpimarratu nahi du erakusketak, bisitariak herri eta hizkuntza indigenengana hurbilaraztearekin batera. Gainera, bisita gidatuak antolatu dira LH, DBH eta Batxilergoko ikasleekin.
- **Garapen Iraunkorreko Helburuetan hizkuntza aintzat hartzeko aldarrikapena (17+1):** Katedrak lidergoa hartu du Euskal Herrian 2030 Agendan hizkuntza eta kultura aniztasuna txertatzeari dagokionez. EASO Politeknikoarekin batera "17+1" deituriko proiektua garatu dugu, eta 18. helburu baten aldarrikapenarekin (hizkuntza eta kultura aniztasuna) hizkuntzen presentzia eza salatu nahi izan dugu Nazio Batuetako 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen 2030 Agendan. Horren berri emateko, hainbat ekimen burutu dira urtean zehar:
 - "17+1 Helburu mundua eraldatzeko" erakusketak oihartzuna izan du UPV/EHUko Leioako Campusean ekainean antolatu zen Green Week-en ekimenean. Panelak egokitu ziren Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko zuzendaritzak (Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetza) sustatu zuen ekimen horretan erakusketa jartzeko.
 - Artikulu bat idatzi da GIHen markoaren barruan: "Garapen iraunkorreko helburuei so hizkuntzen betaurrekoekin" (<https://ojs.ehu.eus/index.php/ekaia/article/view/22087>)
 - BBK Kuna egitasmoaren ekintzetan parte hartu dugu, izan ere, horrek barnebiltzen dituen erakundeetako bat gara. Horretan, "17+1" helburuaren garrantzia aldarrikatu dugu.
 - *Q-epeak* antolatutako kongresuan parte hartu dugu, eta bertan 17+1 helburuaren garrantzia azpimarratu dugu (26/11/2021).
- *Linguistic Diversity, Minoritized Languages and Sustainable Development* izenburuko liburuaren e u s k a r a z k o argitalpena: Liburuaren lehenengo bertsioa ingelesezko, gaztelaniazko eta frantsesezko lanekin osatuta dago eta 2021 urteetan zehar euskaratzeko itzulpen prozesuan egon da. 2022an argitaratuko dela aurreikusten da.
- **Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtetik (IYIL2019) hamarkadara:** 2019ko ospakizunarekin bat egin eta hizkuntza indigenen eta gutxituen aldarrikapenari bildu ginen. 2021ean ekimen horri buruzko txostena eta galdetegia bete dugu eta Katedrako arduraduna den Ines Garcia Azkoaga UNESCOren IYIL2019ko ebaluaziorako egin diren inkestak erantzun eta egindako elkarrizketetan hartu du parte.

- **Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunaren (otsailak 21) harira, “Egunean Behin”** jokua (telefonoaren bidezko aplikazioa) babesle izan ginen astebetetz, zeinetan hizkuntza aniztasunarekin lotutako galderak proposatu genituen. Asteko bi irabazleei bono bana oparitu zitzaion EHU dendan erabiltzeko. Guztira 383.219 partida jokatu ziren.
- **Irakaskuntza, Jabekuntza, eta Erabilerak. Euskara, erdara, elebitasuna eta eleaniztasuna (IT983-16) (2016-2021):** Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen ikertalde egonkortu honetan Katedrako hainbat kidek hartzen dute parte, Katedraren beste ardatz nagusia den hezkuntza eleanitza eta eleaniztasunaren inguruko ikerketa egiten eta ezagutzaren zabalkundean
- **Galeseko Aberystwyth Unibertsitatearekin elkarlana:** hizkuntza gutxiak eta garapen iraunkorraren arteko lotura aztertze helburuarekin sortu da elkarlana, bai Galeseko eta baita Euskal Herriko ikuspuntutik ere. Gaia jorratzeko asmoz gurekin harremanetan jarri ziren ikertzaile galestarrekin nazioarteko bi mintegi egin ditugu 2021ean zehar; halaber, hasiak gara gaiari buruzko artikulu bateratu bat idazten ere (oraindik argitaratu gabe dago).
- **HIGA/EGA ekimenaren laguntzaileak:** hizkuntza lankidetzak sustatzeko proiektu-lehiaketaren laguntzaileak izan ginen. Hamaika gaztek hartzen dute parte urtero, denak hizkuntza gutxi baten hiztun komunitatekoak. Aurtengo edizioa era hibridoan egin behar izan da pandemiaren egoeratik, hau da, online eta aurrez-aurre.

4. KATEDRAK ANTOLATUTAKO IKASTARO ETA JARDUNALDIAK

- **ISD 2021 Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren VII. Nazioarteko Kongresua:** Uztailaren 5-7 bitartean ISD 2021 Kongresua ospatu zen Donostian. Ekitaldiak eta hitzaldiak Miramar Jauregian eta Carlos Santamaria Zentroan egin ziren. Hala ere, Covid-19ak eragindako egoera dela medio, era hibridoan egin behar izan da; hau da, online eta aurrez aurre. Kongresua antolatzeko Katedrak ELEBILAB ikerketa taldearen partaidetza izan zuen. Kongresua UPV/EHUko Uda Ikastaroen barnean eskaini zen. Aurrera eramateko babes ekonomikoa jaso genuen UPV/EHUtik eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik.

Pandemiak mugak ezarri zituen arren, kongresua arrakastatsua izan zen, eta nazioarteko ikertzaileen presentziak komunitate zientifikoari, oro har, eta euskal komunitateari bereziki, aukera eman zion ikuspegi interakzionista eta sozio-diskurtsiboa zabaltzeko. Halaber, hizkuntza-aniztasunari, hizkuntzen funtzionamenduari eta haien didaktikari buruz dugun ezagutza eta ulermena zabaltzeko ere baliagarria izan da kongresua.

Guztira 206 partaide matrikulatu ziren, mundu txoko desberdinetakoak: Euskal Herrikoak, Espainiar estatukoak, Brasilekoak, Mexikokoak, Boliviakoak, Suitzakoak, Frantziakoak, Portugalekoak, Argentinakoak, Kanadakoak... Genevako Unibertsitateko goi mailako adituen presentzia izan genuen hitzaldi nagusiak emateko.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako eta Euskal Herriko Unibertsitateko babes ekonomikoa jaso genuen Kongresua aurrera atera ahal izateko.

5. KATEDRAKIDEEK EMANDAKO IKASTAROAK

Ibon Manterola: "Hizkuntzak ikasteko jarrera eta motibazioak". Atzerriko unibertsitateetan eta goi-mailako zentroetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa. Etxepare Euskal Institutua. Gasteiz. 2021/10/15. Iraupena: 4 ordu.

Ane Ortega eta Roberto Mielgo: "Hizkuntzaren Didaktika: Ahozko eta Idatzizko Hizkuntzaren Irakaskuntza eta ikaskuntza" ikasgaia UEUko *Irakaskuntza Masterrean* (3 ECTS). 2021/01/07 - 2021/01/26

Inari Plazaola: "Lenguas y Desarrollo Sostenible". UPV/EHUko Ingurumen eta iraunkortasunean berezko Masterra. 2021-2022 ikasturtea, Leioa 2021/11/02. Iraupena: 4 ordu.

Arkaitz Zarraga: "Hizkuntzak lantzeko metodologia aktiboak DBHn" UEU. On-line. 2021/09/06-2021/10/21. Iraupena: 30 ordu.

Arkaitz Zarraga: Hizkuntzak lantzeko metodologia aktiboak LHn" UEU. On-line. 2021/09/06-2021/10/21. Iraupena: 30 ordu.

- **Oihaneder Euskararen Etxeak antolatutako Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa:** Katedrako kide den Beñat Garaio, Oihaneder Euskararen Etxeak antolatzen duen Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloan koordinatzaile gisa aritu da. Ekimen honetan hizkuntza gutxitu bateko hiztun edo aditu bat gonbidatzen da mundu zabalean dauden hizkuntza gutxituetako egoera Euskal Herrira, eta batik bat Gasteizera hurbiltzeko asmotan.

6. KATEDRAKIDEEEN HITZALDIAK ETA KONGRESUETAN AURKEZTUTAKO KOMUNIKAZIOAK

Aldekoa, A., Idiazabal, I. & Manterola, I. "Towards an integrated teaching of Basque, Spanish and English in compulsory education in the Basque", VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia. 2021/07/05-07.

Almgren, M., Aebly Daghe, S. & Riedweg, A. "Le Crocodile amoureux: une pratique de dictée à l'adulte avec des élèves allophones", VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia. 2021/07/06

Amorrortu, E., Altuna, J., Hernández, J., Ortega, A. & Goirigolzarri-Garaizar, J. "Comunidades epistémicas para la investigación-acción participativa" in "Comunidades epistémicas para la investigación-acción participativa en cuatro contextos sociolingüísticos: retos del proyecto coordinado EquiLing", V EDiSo International Symposium. 2021/09/27-2021/10-01

Amorrortu, E., Goirigolzarri-Garaizar, J. & Ortega, A. "Un Proyecto de investigación-acción

como espacio-puente para provocar procesos de muda a favor de leuskera", in "The spatial dimensions of linguistic "mudes": three contexts colloquium". XVIII International Conference on Minority Languages. 2021/03/24-26

Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Ortega, A. "Espacios puente para la muda lingüística". *Disrupciones y vulnerabilidades: estudiar el discurso en tiempos de crisis*. V Simposio Internacional EDIso. Online, 2021/09/28 - 2021/10/01.

Díaz de Gereñu, L. & Almgren, M. "Réflexions sur une didactique intégrée des langues dans l'enseignement plurilingue au Pays Basque. Analyse de manuels d'enseignement de basque, espagnol et anglais au secondaire", VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia. 2021/07/05-7

Díaz de Gereñu, L. "Ondarea eta sorkuntza: Ahozko kontakizuna eskolan." Irakasle masterreko formakuntza saioa, Université Bordeaux Montaigne. Online. 2021-05-11

Díaz de Gereñu, L. "Ondarea eta sorkuntza Begirada gurutzatua kontalaritzatik". Euskal Etnopoloaren jardunaldi zikloa. Euskal Kultur Erakundea, Euskal Etnopoloa-Ethnopôle Basque. Online. 2021/01/21

Díaz de Gereñu, L. "Euskara ardatz eskola eleaniztunean: testuingurua abiapuntu eta helburu". Irakasleen prestakuntza iraunkorra 2020-2021, Gasteizko Berritzegunea, Eusko Jaurlaritzak. Online. 2021/05/21

Díaz de Gereñu, L. "Ahozko gaitasunen lanketa: non eta nola uztartzen dira bestelako gaitasunekin?" Irakasleen prestakuntza jarduerak 2020-2021, Zarauzko Berritzegunea, Eusko Jaurlaritzak. Online.

Díaz de Gereñu, L. "Kontatu zure tesia" Antton Irusta eta Amaia Elizagoienekin batera. V. Ahoz Aho jaialdia. Tolosa. 2021/03/13

Díaz de Gereñu, L. & Biain, I. "Aprendiendo a hablar bien en euskera en la escuela. ¿Por qué y cómo?" Eskola Hiztun Bila jardunaldiak. Donostia. 2021/10/27

Díaz de Gereñu, L., Dolz, J. & Biain, I. "Ahozkoaren irakaskuntza" Eskola Hiztun Bila jardunaldiak. Donostia. 2021/10/27.

Garaio, B. "Ahozko hizkuntza gaitasuna ipuin bidez aztertu: euskal eskola eleaniztunetako ikasleen ekoizpenak". IKER-EHU doktoregaien mintegia. EHUko Euskal Ikasketak eta Hizkuntzalaritza doktorego programa. Baiona.

Garaio, B. "Nahia elikatu eta praktikan eragin, eskolan eta eskolaz kanpo". Eskola Hiztun Bila. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Donostia. 2021/10/28

Garaio, B. "Eskola testuinguruko errealitatea eta esperientziak". Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Soziolinguistika Klusterra. Iruñea. 2021/11/11

Garaio, B. "Herri eta komunitate mailako errealitatea eta esperientziak". Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Soziolinguistika Klusterra. Iruñea. 2021/11/11

Garcia Azkoaga, I. "Wikipedia, testu entziklopedikoen biltegia". Wikipedia-Wikimedia editatoia 2021: zeharkako gaitasunak lantzeko akuilu. Donostia. 2021/07/16

Garcia Azkoaga, I. "Tallerra: Wikipedian editatzen. Nabigazio-orriak: garapen lexiko-diskurtsiboa eta kontsulta-tresnak." Wikipedia-Wikimedia editatoia 2021: zeharkako gaitasunak lantzeko akuilu. Donostia. 2021/07/16

Garcia Azkoaga, I. "Kirolaren eta jarduera fisikoaren esparruko idatzizko eta ahozko testuen lanketa informazio- eta komunikazio-teknologiak baliatuta." VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia. 2021/07/06

Garcia Azkoaga, I. Langues d'origine et langues d'enseignement: passages et frontières. Geneva, Suiza. 2021/02/11.

Garcia Azkoaga, I. "Educación plurilingüe y lenguas originarias: oportunidad y reto". IV Congreso Internacional - VII Congreso Nacional de Lingüística y Educación. Lima (Online). 2021/11/11-26

Garcia Azkoaga, I. "La normalización de la escritura en el marco de la revitalización de la lengua". XIV Congreso Nacional de Educación Intercultural Bilingüe. Lima (Online). 2021/12/09-12

Garcia Azkoaga, I. "Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS)". Q-epea: Entidades públicas vascas por la gestión avanzada. Leioa. 2021/11/26

Garcia Azkoaga, I. & Larringan, Aranzabal, L.M. "Modalitate apreziatiboa: testuen interpretaziorako eta ekoizpenerako baliabidea." VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia. 2021/07/06

Garcia-Ruiz, M. & Manterola, I. Ideological components of multilingual family language policies and the role of Basque. ICML XVIII 18th International Conference on Minority Languages. Bilbo. 2021/03/24-26.

Garcia-Ruiz, M. "Family as a language policy regime: agency, practices and negotiation in indigenous and migration contexts: Language policies and practices in Basque-speaking families: A comparative study of the Greater Bilbao Area and Pamplona". Challenging borders: from/between borders. Berna, Suiza.

Goirigolzarri-Garaizar, Jone & Altuna, Jaime. "Youth languages and change" mahai-inguruaren antolaketa. XVIII International Conference on Minority Languages. 2021/03/24-26

Idiazabal, I. "Eleaniztasuna eta metahizkuntza ezagutza" Les voix des autres/Besteen ahotsak. Multilingualisme et Littérature. Université Laval, Euskal Pen Kluba, Etxepare Institutua. Online. 2021/10/13

Idiazabal I. "Murgilketa euskara bezalako hizkuntzen irakaskuntzan", VII Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. ELEBILAB & Cátedra Unesco de Patrimonio Lingüístico Mundial de la UPV/EHU. Donostia, 2021/07/5-7

Idiazabal, I. "La educación multilingüe con el euskera (lengua vasca) como eje" Workshop on Multilingualism and Plurinationalism in Spain. How Multilingual Backgrounds Help us in Improving Language Teaching and Learning (2021) Colorado University Boulder. Department of Spanish and Portuguese. 2021/04/21. Online.

Manterola, I. "Gaurko euskal hizkuntza-komunitatearen analisisa: ertzak erdigunean. Euskara ala ez gara ertzetan? Euskaldun identitateak XXI. Mendean". Elgoibarko Izarra. Elgoibar. 2021/10/16.

Manterola, I. "Multilingual education and the revitalization of Basque: Successes and challenges. Gnéithe den ilteangachas san oideachas / Aspects of multilingualism in Education". SEALBHÚ-Dublin City University. 2021/10/19.

Manterola, I. "Comment intégrer une langue minorisée dans un dispositif didactique trilingue qui vise l'apprentissage des compétences orales plurilingues? Journée d'étude online: Langues d'origine et langues d'enseignement: passages et frontières". Genève. 2021-02-11.

Munarriz, A., Diaz de Gereñu, L. & Manterola, I. "La escritura de la reseña científica en la universidad: análisis de textos de alumnado novel para una propuesta de transposición didáctica". VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia: 2021/07/05-07.

Ortega, A. "Effective family language policies and intergenerational transmission of minority languages: experiences from Spanish dominated and diasporic contexts". XVIII International Conference on Minority Languages-ICML 2021. Bilbao/Online. 2021/03/24-26

Pardina, A. & Manterola, I. Euskara murgilketa ereduan ikasitako gazte nafarren muda linguistikoak: faktore laguntzaileak eta oztopatzaileak. ICML XVIII 18th International Conference on Minority Languages. Bilbo. 2021/03/24-26

Reyna-Muniain, F. & Manterola, I. Identidad lingüística gallega en Buenos Aires. Una encrucijada entre la hispanofonía y la lusofonía. Congreso Internacional de Lenguas Pluricéntricas. UFSC, UFF, UFBA, UnB, UNIOESTE, UFRR, IPOL. Online. 2021/10/20-22.

Torralba Rubinos, C & Garcia Azkoaga, I. Ikusizko itzulpena Legebiltzarreko agerraldietan: hirukote baten zirrikitu testual eta diskurtsiboak. VII. Congreso Internacional de Interaccionismo Socio-discursivo. Donostia. 2021/07/06

Ortega, A. & Zarraga, A. "Nasa yuwe hizkuntza". Hitz Adina Mintzo (Hizkuntza gutxiuak ezagutzeko zikloa). Oihaneder Euskal Etxea, Vitoria-Gasteiz. 2021/12/21.

7. KATEDRAKO BESTELAKO JARDUERA BATZUK

- "Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen" erakusketaren inguruko bisita gidatuak Barañainen, Aretxabaletan, Oiartzunen, Orion, Elorrion eta Durangon.
- Urriak 21, azaroak 18, abenduak 16: Jone Goirigolzarri « Euskal(e)gintza gaur: arazo zaharrak erantzun berriak" hitzaldi-zikloa AzeBarri Kultur Elkartean.

8. KATEDRAREN PRESENTZIA HEDABIDEETAN

Urtean zehar Katedrarekin lotutako gaien jardueren berri eman dugu hedabide ezberdinen bidez (ohikoak zein sare sozialekoak).

Noiz	Nor / Zer	Zer / Gaia	Non
2021-01-24	Arkaitz Zarraga	Iritzi artikulua: Motor zaharrarekin ari gara	Argia
2021-01-27	Arkaitz Zarraga eta Ane Ortega	Artikulua: Hizkuntza ikasteko lehen liburua eskura dute herritarrek	Argia
2021-03-08	Itziar Idiazabal	Erreportajea: Unibertsitate berdinzaleago baten bidean	EHU Campusa
2021-05-02	Arkaitz Zarraga	Iritzi artikulua: Lehen urratsa izan dadila	Argia
2021-05-07	Ines Garcia-Azkoaga eta Andoni Barreña	Elkarrizketa: Hizkuntza gutxituak eta natura, gogoetarako gai	Goiena
2021-05-13	Hizkuntza Indigenak Ama Lurra zaintzen erakusketa	Artikulua: Exposición 'Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen'	El Diario Vasco
2021-09-05	Arkaitz Zarraga	Iritzi artikulua: Tipikoa mitiko	Argia
2021-09-17	Arkaitz Zarraga eta Andoni Barreña	Elkarrizketa: Herritarrek ikusten	Anboto

		dute hizkuntza dela nasa identitatea ematen diena	
2021-09-19	Ibon Manterola	Artikulua: Hiztunak lortzeko modu bakarra	Berria
2021-12-05	Arkaitz Zarraga	Iritzi artikulua: Euskaraz jardutea periferikoa da	Argia
2021-12-30	Ane Ortega	Erreportaia: Ikasleak nola euskaldundu	Berria

Agerpenak sare sozialetan: 2021ean egindako ekimen guztiak, parte-hartutako ekimenak barne, katedrako sare sozialetan hedatu dira Twitterren (@UNESCOmho) zein Facebooken (@HizkuntzenUnescoKatedra), eta katedrako webgunearen (www.ehu.eus/mho-unesco-katedra) .

9. KATEDRAKIDEEK JASOTAKO SARIAK

Itziar Idiazabal Gorrotxategi: Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako ekitaldi instituzionalean omendu zuten katedrakidea Arteak eta Giza Zientziak alorrean garatu duen jarduera akademikoagatik. 2021/03/08, Gasteiz.

Itziar Idiazabal Gorrotxategi: Ohorezko Euskaltzain izendatu dute 2021ean.

10. KATEDRAKIDEEEN ARGITALPENAK

10.1. LIBURUAK

Diaz de Gereñu, L., Manterola, I. & Garcia-Azkoaga, I. (arg.) (2021). *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Bilbao: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua. Servicio editorial de la UPV/EHU. ISBN: 978-84-1319-342-7.

10.2. KAPITULUAK LIBURUETAN

Aldekoa, A., Garaio, B. & Garcia-Ruiz, M. (2021) "Hiru txerritxoak eta beraien abenturak, otsoak beraien etxeak bota ez ditzan: hizkuntza gutxitua ardatz duen hezkuntza eleaniztuneko hiru kasu apreziatibo". In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (eds.), *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu* (181-198). Bilbao: UPV/EHU-UEU. ISBN 978-84-1319-3427

Almgren, M., Ezeizabarrena, M.J., & García, I. (2021) "Elebidun txikien garapen lexiko eta gramatikala" ". In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (arg.), *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Bilbo: UPV/EHU. 163-179. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Almgren, M. & Barnes, J. (2021) "Training teachers for the challenges of multilingual education" in Jorge Pinto & Nelía Alexandre (eds). *Multilingualism and third language acquisition. Learning and teaching trends*. Contact and Multilingualism 2. Berlin: Language Science Press (2021). 117-136. ISBN 978-3-96110-297-6

García-Azkoaga, I & Díaz de Gereñu, L (2021). " Mintzaira-jarduera eta generotasuna: narrazio-egintza adibide" In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (arg.),

Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai. Bilbo: UPV/EHU. 143-162. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Goirigolzarri-Garaizar, J. (2021). "Gazteak eta euskara pandemia garaian". In *Gazteak eta pandemia. Adituen begiradak*. Gazteen Euskal Behatokia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurjaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. 70-73

Idiazabal, I. (2021) "ELEBILAB, gure iker taldearen ibilbidearen historia moduko zerbait, erronka berriak ahaztu gabe", in L. Diaz de Gereñu, I. Garcia-Azkoaga eta I. Manterola (Eds.) *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu*, Bilbao: UPV/EHUko argitalpen Zerbitzua. 19-34. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Larringan, L.M., Diaz de Gereñu, L. & García-Azkoaga, I. (2021). "Mintzaira, testua, generoa: interakzionismo sozio-diskurtsiboaren talaiatik" . In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (arg.), *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Bilbo: UPV/EHU. 119-143. ISBN: 978-84-1319-342-7. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Lascano, B. & Manterola, I. (2021). "Mattin Zaku eta Centellita/Étincelle: D ereduko haurren garapen elebiduna aztergai". In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (arg.), *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Bilbo: UPV/EHU. 163-179. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Mendizabal, M. & Uranga, B. (2021). "Munduko hizkuntza-aniztasunetik euskarara; ekologiari begirada" in In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (arg.), *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Bilbo: UPV/EHU. 257-273. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Ortega, A. & Zarraga, A. (2021). "Euskal-nasa kooperazioa: helduen eskoletarako metodologia eraginkorraren bila, atazetan oinarritutako irakaskuntzaren bidetik". In: Diaz de Gereñu, L.; Manterol, I. & Garcia-Azkoaga, Ines M. (arg.), *Euskara oinarri, eleaniztasuna helburu*. Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco EHU/UPV. 287-302. ISBN: 978-84-1319-342-7.

Zarraga, A. & Ortega, A. (2021). "Euskal-nasa kooperazioa: helduen eskoletarako metodologia eraginkorraren bila, atazetan oinarritutako irakaskuntzaren bidetik" in In L. Diaz de Gereñu, I. Manterola & I. Garcia-Azkoaga (arg.), *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai*. Bilbo: UPV/EHU. 287-302. ISBN: 978-84-1319-342-7.

10.3. ARTIKULUAK ALDIZKARIETAN

Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Ortega, A. (2021). Ekintza-ikerketaren partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 120(3), 11-26.

Flors-Mas, Avel·lí & Manterola, I. (2021). Els models lingüístics de l'educació obligatòria a la Comunitat Autònoma Basca i a Catalunya: una visió comparada. *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law*, 75, 27-45.

<https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3590>

- *Ingelesezko bertsioa*: Flors-Mas, Avel·lí and Manterola, I. (2021). The linguistic models of compulsory education in the Basque Autonomous Community and in Catalonia: a comparative view. *Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law*, 75, 27-45.

<https://doi.org/10.2436/rld.i75.2021.3590>

García-Azkoaga, I.M. & Idiazabal Gorrotxategi, I. (2021). Garapen iraunkorrekohelburuei so hizkuntzen betaurrekoekin, *EKAIA ale berezia*.

García-Azkoaga, I.M.; Bengoetxea, O. & Zabala, J. (2021). Hizkuntzaz besteko irakasgaietan euskararen ahozko erabilera indartzen, *Bat: soziolinguistika aldizkaria* (120), 153-174.

Goirigolzarri Garaizar, J., Marko, I., & Manterola, I. (2021). e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria [e5: a new interpretative framework for the development of the Basque community]. *Fontes Linguae Vasconum*, (132), 473-495.

<https://doi.org/10.35462/flv132.7>

Idiazabal Gorrochategui, I. & García Azkoaga, I. M. (2021). Munduko hizkuntza-aniztasuna, gure ondare materiagabe nagusiari nola eutsi, *Bat: soziolinguistika aldizkaria* (121), 151-127.

Ortega, A., Goirigolzarri, J. & Amorrortu, E. (2021). 'Participatory Action Research to Promote Linguistic Mudas among New speakers of Basque: Design, Benefits and Challenges'. *El sujeto neohablante: condiciones, espacios y procesos de muda/conversión en contextos de lenguas minoritarias*. Special issue of the *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, Ramallo, F. & Urla, J. eds. Published online 06 September 2021:

<https://www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/01434632.2021.1968877>

Ortega, A. & Zarraga, A. (argitaratze bidean). Redes de colaboración para la revitalización de las lenguas indígenas: la experiencia nasa-vasca. / Creating networks and partnerships for indigenous language revitalization: the Nasa-Basque experience. The International Year of Indigenous Languages 2019: Perspectives Conference Proceedings. Special issue of the *Language Documentation and Conservation journal*